

Julene Azpeitia lehiaketa



2021. urtea

Argitaratzailea: _____

Laguntzailea: _____





JULENE AZPEITIA (1888-1980) Zumaian jaio eta Bilbon zendu zen 92 urte zituela. Maistra titulua lortu ondoren, Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen eta, hemendik, Bizkaiko ikastoletara pasatu zen. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “milla bider jaioko banintzake ere, maistra izango nintzake” aipatu zuen behin baino gehiagotan, izan ere, beren bizitzako ardatz nagusiak *umeak* eta *euskara* izan ziren. 1916. urtean Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Senarrarekin batera Mexikora joan zen eta, han, 1918. urtean, euskaraz idazteari ekin zion.

Itsasoz haraindi lau urte eman ondoren, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoako Traña eta Mendiolako auzo eskoletan jardun zuen 1922tik 1936a arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan behar izan zituen: “amaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean...Orain Durangon bizi naiz nire senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Esanguratsua da 1962an Euskaltzaindiko Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren izenburua: *Euzkera jasotzea erabaki dogu*. Izan ere, Julenek, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea zuen helburu. Arrate Irratiak emititzen zuen *Oiztik Anbotora* irratsaioan hartu zuen parte, besteak beste, Juan Gallastegi apaizarekin eta Eskarne Aromarekin. Irratian, maistra-lanetan edota idazterako orduan, beti, kezka nagusi bat zebilkion buruan: “nola jardun euskara iraunarazteko eta berau umeengan biziberritzeko?”

1975. urtean, Gabriel Arestik proposatuta, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen Julene Azpeitia. Bera izan zen lehen emakume euskaltzain ohorezkoa, eta gero, Tene Mujika debarra eta Madeleine Jauregiberri zuberotarra gehitu zitzaizkion.

Julene Azpeitiak argitaratu zituen liburuak: *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* (1920); *Irakurri, Matte* (1932); *Amandriaren Altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974).

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2021. urtea
Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga
Argazkiak: Zalao Fuertes
Argitaratzailea: Durangoko Udala
Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati
Inprimategia: Gertu. Oñati
Lege Gordailua: SS-1424-2014
2021eko azaroa

Aurkibidea

HITZAURREA	5
-------------------------	---

Juan Julian Rios Santiago

Durangoko Alkateordea eta Herrigintza Batzordeko Presidentea

IPUINAK

GALDUTAKO ARRAUTZA	10
---------------------------------	----

Naiare Axkoeta Beitia

AMAMA PETRA	14
--------------------------	----

Jone Berrizbeitia Munitxa

NI AZKENEAN	21
--------------------------	----

Xixili Zugaza-Artaza Agirre

BIHARAMUNEKO ORBAINAK	29
------------------------------------	----

Malen Goñi Gorritxategi

EGUNERO	38
----------------------	----

Leire Vargas Nieto

OLERKIAK

ORTZADARRA PANDEMIA GARAIAN	52
--	----

Iara Martin Muñoz

BARNEKO TXORIA	55
-----------------------------	----

Maddi Etxebarria Ormaetxea

ZURE BELDUR NINTZEN 58

Danel Barrutia Narbaiza

GUSTATUKO LITZAI DAKE 61

Nerea Etxaburu Mintegi

BOLERO BAT ENTZUN NAHI DUT 66

Ainhoa Urien Telletxe

BERTSO PAPERAK

ATHLETIC 71

Irati Gallego Etxebarria

BIHOTZA TXURI-GORRI..... 74

Helena Barrenetxea Fernandez

ABENDUKO EGUN BATI JARRIAK..... 77

Ander Sarriguarte Garcia

MIN BIZIA 80

Karmele Mitxelena Etxebeste

Hitzaurrea

Esku artean duzu Durangoko Udalak antolaturiko Julene Azpeitia literatura lehiaketaren azkeneko edizioa, aurrekoetan bezala, “haurrak, gazteak eta euskara” uztartzeko xedez.

Julene Azpeitia emakume aitzindaria izan zen euskaraz idazten. Bere eguneroko jardunean txikienganako heziketa lehenetsi zuen maitasun eta debozio paregabez. Bere helburu nagusia haurrek eta gazteek euskara maitatzea zen.

Lehiaketa honek ere xede bera du: Ipuinak, olerkiak eta bertsoak baliatuz, literatura-sorkuntzan murgilaraztea Durangoko haur eta gazteak. Aurten, gainera, inoizko pasiorik handienaz jardun izan dugu zorigaiztoko pandemiaren eraginez. Mugez eta murrizketez beteriko testuinguruan, berebiziko garrantzia eman diogu literatura-sorkuntzari larrialdi-egoera eta behaztopa guztiak gaingitzen lagundu gaitzan. Izan ere, literatura “dohain” aparteko eta bidelagun da trabak gaingitu eta amesten jarraitu dezagun.

Niri dagokidan aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet lehiaketan parte hartu duten guztiei eta hezkuntza arloko komunitateari, euskarazko literatura sortzen erreferente ezinbesteko direlako eta, aldi berean, eskuzabal jardun izan dutelako euskararen eta literaturaren pasioa gizarte osoari kutsatzeko ahaleaginean.

Azken hitzak irakurleari zuzendu nahi dizkiot: irakur itzazue eta gozatu idazlan eder eta magiaz beteriko hauekin.

Eskerrik asko eta besarkada bat.

Juan Julian Rios Santiago
Durangoko Alkateordea eta Herrigintza Batzordeko Presidentea

Julene Azpeitia
l e h i a k e t a
2 0 2 1


Ipuinak



*Naiare
Axkoeta Beitia*

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -

Galdutako arrautza



Anboto mendiko baserri txiki batean, animalia asko bizi ziren. Denak lagunak ziren eta oso pozik bizi ziren. Txori eta Txora izeneko txori bikote bat, baserri ondoko zuhaitz handi bateko habian bizi zen. Egun horietan, hiru arrautza izan zituzten eta kumeen etorrerarekin oso pozik zeuden.

Egun haizetsu eta ilun batean, Txori eta Txora jatekoaren bila joan ziren kumeen etorrera prestatzeko. Haien habiara bueltatzerakoan, arrautza bat falta zitzaie la konturatu ziren. Eta asko kezkatu ziren:

- Zer egingo dugu? -Galdetu zuen Txorik.

- Baserrira joango gara ea norbaitek ikusi duen galdetzera -esan zion Txorak.

Bitartean, beste arrautzak zabaldu egin ziren: Kras-kras. Lehenengo txitari Txirutxiru deitu zioten eta bigarrenari Txiu. Baina arrautza bat falta zenez, bere bila joan ziren. Baserrira joan zirenean, lehendabizi Muuusu behia ikusi zuten.

- Kaixo Muuusu, gure habiatik arrautza bat jausi da eta bere bila gabiltza, ikusi duzu? -galdetu zion Txorak.

- Ez, paseo bat ematen aritu naiz eta ez dut ezer ikusi -esan zuen Muuusuk- zeozer ikusten badut esango dizuet. Nahi baduzue, nire esnea emango dizuet umeak eduki berri dituzuelako, nire lagunak zaretelako eta zuen kumea aurkitzeko indarra behar duzuelako.

Eta Txorik eta Txorak behiaren esnea edan zuten: Glu-glu. Ostean, Tink untxiaren-gana joan ziren.

- Kaixo Tink, ikusi duzu gure arrautza bat? Galdu egin dugu eta bere bila gabiltza -esan zion Txorik.

- Ez, baina non dagoen hobeto ikusteko, azenario batzuk emango dizkizuet.

Eta azenarioak jaten hasi ziren: Jam-jam.

Jarraian, bi ardirengana joan ziren, handia Bееа deitzen zen eta txikia, Heleena.

- Kaixo ardiak, ikusi duzue arrautza bat? -galdetu zion Txorak.

- Ez, ez dugu ezer ikusi -esan zuen Heleeenak.

- Baina, hotzik ez edukitzeko eta zuen habian erabiltzeko, gure artilea emango dizuegu -esan zuen Beeeak.

Eta Txorik eta Txorak poz-pezik hartu zuten artilea. Jarraian, oilategira joan ziren.

- Kaixo oiloak, ikusi duzue arrautza bat? -galdetu zuten Txori eta Txorak.

- Guk arrautza asko ditugu, etorri gurekin ikustera -erantzun zion Kikiriko oiloak.

Eta denak arrautzak ikustera joan ziren. Arrautza bat berezia zen eta, *kras*, momentu horretan zabaltzen hasi zen. Txori kume bat zen. Txorik eta Txorak galdutako arrautza zen. Denak pozarren saltoka hasi ziren.

Kumeari Fliufliu deitu zioten, haizeak lurrera bota zuelako eta haizeak fliufliu zarata egiten duelako.

Eta guztiei eskertzeko jai handi bat egin zuten zuhaitz handiaren azpian. Denak elkartu ziren: Txori, Txora, Txirutxiru, Txiu, Fliufliu, Muusu, Tink, Bееea, Heleena, Kikiriko eta baserriko beste animalia guztiak.

Eta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren.

Eta hala bazan edo ez bazan

sar dadila kalabazan

eta atera dadila

baserriko kortan

Ipuinak



*Jone
Berrizbeitia Munitxa*

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -

Amama Petra



Il-2

Gure amama Petra ez da beste amamen modukoa. Gehienak maitagarriak eta eskuzabalak dira euren bilobekin eta dena barkatzen diete. Gurea, oster, 87 urteko atso ipurterre eta erretxin bat da, diruzale amorratua, bere buruaz baino pentsatzen ez duena. Betidanik jakin izan dut txoro samarra dela, baina oraingoan marka guztiak hautsi ditu. Seguru nago inguruetan ez dagoela nirea bezalako amamarik. Hori zenbateraino egia den ikus dezazuen, orain dela astebete Durangoko zahar-etxe batean gertatu zen istorio sinesgaitz bat kontatuko dizuet.

Goizero legez, amama Petra, gosalduta eta zahar-etxeko bere gelan eseri zen bere koadrila lagunekin, denak andrazkoak eta 85 urtetik gorakoak. Atea giltzaz itxita zegoela ziurtatu ondoren, goizeroko poker partida jokatzen hasi ziren, mahaiaren inguruan jesarrita.

Hirurehun euro handik, berrehun bestetik, dirutza ederra pilatu zen mahai gainean. Amamari sarritan ahazten zaio nire izena, baina buru ona du karta-jokoetarako eta diru kontuetarako. Atso zaharrak ezti-potean zebiltzan, eta gure amama bero-bero, hango bilete piloak ikusita. Bat-batean, ateko sarrailaren hotsa entzun zen eta ondoren gizon baten ahotsa:

- Zabalduta atea! Ertzainak gara! -Inork ez zuen zirkinik ere egin.

Berrito ere:

- Atea zabaltzeko!

Azkenean, ertzainek, gogaituta, lurrera bota zuten atea ostikoka.

Hura izan zen zalaparta eta astrapalada! Ana Mari, gure amamaren lagun mina, izututa, leihotik ihes egiten ahalegindu zen, baina hantxe geratu zen tratatuta, ez atzera ez aurrera. Petrak, birritan pentsatu gabe, diru guztia batu eta titi-zorroan ezkutatu zuen. Pare bat andre han zebiltzan, batetik bestera, gelan bueltaka, zer egin ez zekitelako. Beste guztiak, ordea, erdi gorrak zirenez, ez zuten ezer entzun eta han jarraitzen zuten, pokerrean jokatzen lasai asko.

A zelako panorama! Ertzaina Mertxerengana joan zen, hantxe zegoen-eta begiak kartetan iltzatuta, eta partida geratzeko eskatu zion.

- Ezta pentsatu ere! -erantzun zuen Mertxek. Beti momenturik txarrean agertu behar! Begira zelako kartak ditudan! Utzidazu esku hau amaitzen,

gizona, eta itzuli zaitez hemendik ordu laurdenera!

- Baina zuek ez al dakizue legez kontrakoa dela pokerrean dirua jokatzeko kasinoetatik kanpo? -galdetu zuen ertzainak.

Denek jarri zuten inuzente aurpegia, ezer ez balekitez bezala. Atso koadrila epailearengana eramane zuten eta honek, errukituta, isun bat ordainaraztea eta libre uztea erabaki zuen.

Zahar-etxera heltzeaz batera hasi ziren berriro andreak pokerrean. Asko ardura zien haiei ertzainek ziotena! Lau bat partida jokatuak atsoak berriro zeuden bero-bero eginda. Zenbat eta beroago, hainbat eta apustu handiagoak: mila euro, bi mila... Eta denen artean beroen, beti bezala, gure amama Petra. Seguru zegoen Maritxuren kontra irabaziko zuela, eta ez zitzaion besterik bururatu baserria jokatzeko baino! Hasi ziren kartetan eta atso guztiak batu ziren jokalarien inguruan. Zailtasun handirik gabe irabazi zion Maritxuk gure amamari. Petra tripa jaten zegoen, amorruari eutsi ezinik. Muturtuta pasatu zuen arratsalde osoa, ernegatuta eta tokortuta. Halako batean, beste ideia zoro bat etorri zitzaion burura. Ana Mariri besotik heldu eta esan zion:

- Ana Mari, badakin Maritxuren kontra jokatu eta baserria galdu dudala. Uste dinat Maritxuk tranpa egin duela. Kartaren bat edukiko zinan gordeta mangapean eta ni konturatu barik aterako zinan. Ez dinat sinesten atso hark garbi irabazi duenik.

- Eta zer egingo duzun ba, Petra? —galdetu zion Ana Marik.

- Arratsalde guztian egon naun buruari bueltaka eta erabaki dinat Maritxuri sustutxo bat ematea. Eskaileretatik behera botako dinagu eta hartuko duen kolpearekin arin ahaztuko zazkionan baserria eta enparauak.

- Baina Petra! Maritxu gurpildun aukian ibiltzen duzun eta! Ez duzun pentsatuko aulki eta guzti botatzea, horraitio!

- Bai ba! Esango dinagu istripu bat izan dela eta inor ez duzun ezertaz konturatuko. Dena dela, nik ezin dinat bota, segituan susmatuko lukete eta nahita egin dudala. Hamar mila euro ematen badizkinat, prest egongo hintzateke lana nire ordeztzeko?

- Egongo ez naun ba! —esan zuen Ana Marik, birritan pentsatu gabe.

Ana Mari Petraren modukoa zen, edozer egingo zukeen diru truke. Halako batean, pentsatu zuen bere artean: “Izan hadi argia, neska! Petrak eskaini dinan lan bera beste atso zaharren bati eskaini iezaion sei mila euroren truke, eta sar itzan lau mila euro poltsikoan kolpe zorririk jo gabe!”

Arratsalde hartan bertan, Ana Marik Mertxerengana jo zuen eta honek onartu egin zuen bere proposamena. Baina, ai! Mertxe ere oso argia zen, eta Ana Mariren ezkutuan Joxepari eskaini zion lana. Joxepak ere beste horrenbeste egin zuen, eta lana horrela eskutik eskura pasatzearen buruz, azkenean, Mari Karmenek botako zuen Maritxu eskaileretatik behera mila euroren truke.

Beraz, heldu zion Mari Karmenek Maritxu eserita zegoen gurpildun aulkiari, eta eskailera-burura heldu zirenean, abiada hartu eta, aulkia askatzeko puntuan zegoela, hobeto pentsatu eta buelta erdi eman zuen.

- Maritxu, gauza bat aitortu behar dinat. —esan zuen Mari Karmenek—. Hara, Joxepak mila euro agindu zizkinan hi eskaileretatik behera botatzearren. Pozik egon beharko hukeen ez haudalako bota. Nik dirua nahi dinat, beraz egin itzan hildako plantak. Joxepari etortzeko esango zionat eta lurrean botata ikusten hauenean, dirua emango zidan eta bakean utziko haut.

- Ezta zoratuta ere! Zer uste duzue, ba! Ikusiko duzue sorgin zaharrok! —esan zuen oihuka Maritxuk. Handik hamar bat minutura, uniforme z jantzitako hiru gizon sartu ziren amama Petraren logelara, han baitzeuden atso guztiak.

- Mari Karmen, nola demontre bururatu zaizu Maritxu gaixoa eskaileretatik behera botatzea? —galdetu zuen ertzainetako batek.

- Ez da nire ideia izan. Joxepak mila euro eskaini zizkidan Maritxuri susto bat emateagatik—erantzun zuen Mari Karmenek totelka.

- Joxepa, zer daukazu esateko? —beste ertzain batek ahots goran.

- Niri Mertxek eskaini zidan lana hiru mila euroren truke —zuritu zuen bere burua Joxepak.

- Ana Marik dauka errua —esan zuen Mertxek—. Sei mila euro agindu zizkidan.

- Eta zuri, Ana Mari, nork eskaini zizun lana? —galdetu zuen hirugarren ertzainak, burla puntu batekin.

- Petrak. Hamar mila euroren truke —esan zuen lasai asko Ana Marik.

Ikusirik gure amama zela azalpenak emateko geratzen zen atso bakarra, halaxe galdetu zuen ertzainetako batek:

- Beraz, hau guzti hau zeure burutazioa izan da, ezta?

Eta gure Petrak:

- Ez, ez, ez. Ni ez naiz nire ekintzen erantzule. Niri medikuak esan dit “falta de riesgo” daukadala, beraz, nik ez daukat ezeren errurik.

- ”Falta de riesgo”? “Falta de riesgo” izango da, ze arriskua, makaleko arriskua daukazu zuk andratxoa!

Azkenean, zauriturik egon ez zenez, kartzela zigorrik ere ez. Hala ere, berehala eman zieten “Valium” pilula dosi bikoitza andra guztiei eta orain zahar etxean daude inoiz baino zintzoago.




Ipuinak



*Xixili
Zugaza-Artaza Agirre*

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -

Ni azkencan



Nire izena Agatha dela, edo nolako itxura dudan kontatu beharrean, zer pentsatzen dudan kontatzearekin hastea egokiagoa iruditzen zait, kanpotik ikusita, ez nauzuelako ezertxo ere ezagutuko. Nire istorioa jakin nahi baduzue nahiago dut barruagotik kontatzea. Beraz, sakontzen hasi baino lehen, jakin beharra duzue, gazteok bizitza erraza dugula esaten duen jendeak amorru galanta sorrarazten didala. Ez zaitetzte edonork esaten duenaz fidatu, egiaz ohartzekoan, oreka galduko duzuelako.

Nik ez dut haurtzaro “normal” edo ohiko bat izateko aukerarik izan, mainontzi bat nintzenetik orain ditudan 15 urteak bete arte, bide luze, gogor eta latza pasatu behar izan dudalako. Hau guztia erronka bezala hartu izan ohi dut, eta horrela jarraitzeko asmoa dut, zartadaz beteta bihotza, gero eta eskasago nagoela uste dudalako. Arazoak txikia nintzenean hasi ziren, hiru bat urte izango nituen aitari minbizia zuela esan ziotenean, eta zoritxarrez, amen esateko behar den denboran, oroitzapen goxo batekin agurtu gintuen. Hori gutxi balitz, zortzi bat urte nituela ama etxetik joan zen, oraindik ezagutzen ez ditudan arrazoiengatik; oso lauso dut memoria. Orain, aitona-amonekin bizi naiz. Hasiera batean, babes falta handia sentitu nuen, baina denbora igaro ahala, aldaketa askoren ondoren, hegoak berreskuratu ditudala sentitzen dut.

Denboraldi ona pasatzen ari naiz; lagunak ditut, ikasketetan ondo nabil, eta ez dut arazo handirik izaten: sasoi eder batetik pasatzen ari naizela esan daiteke. Baina arraroa egiten zaidan zerbait dago, eta grina handia sentitzen dut bizipenen atzean zein egia ilun ezkututzen den aztertzeko. Gaurko egunean, abenduaren 13an, urtero-urtero behatu dudan moduan, aitona-amonak ezberdin ikusten ditut. Begirada ahul eta tristuraz josiak. Urtero legez, afaldu ostean hitz egiten entzun ditut, eta ama aipatu dute, faltan botatzen dutela edo horrelako zerbait. Hori esan ostean, ez dakidan zerbait dagoela antzeman dut, utzi duten isilunearen ondoren, dena esaten duten isiluneak daudelako, eta baita ezer esaten ez duten hitzak. Egia esan, ez dut amaren itxura oroitzen, baina ziurtzat eman dut beti ez dudala berriz ikusiko. Bueltak ematen hasi naiz guzti honi, eta Interneten bilatzea erabaki dut, argazkirik igota dagoen-edo ikusteko. Inoiz ez zait horrelako zerbait burutik pasatu, ez dut beharrik sentitu, baina eguna iritsi da.

Amaren izena sartu eta aldizkari zahar baten argazkia agertu zait.

Irakurtzerakoan, tripak nahastu zaizkit, inoiz ez naiz horrela sentitu. Lo zegoen zerbait piztu da nire barruan. Gogoratzen hasi naiz. Inork imajinatzen ez dituen sentimendu horiek bilatzen eta bilatzen jarraitzea bultzatu naute, kontrolik gabe, zerbait aurkitu dudan arte. Facebookeko kontu bat agertu zait, eta jakingura handiz barruan sartzea erabaki dut. Bertan, emakume baten argazki sorta bat aurkitu dut, “hori izango da nire ama?”. Ez dut ezagutzen emakume hori, baina bai, ama da. Begi berde horiek berriz ikustean, nire barruko zerbait atzera bueltan joan da, oroitzapenez beteriko tsunami handi batek eraso egitea bezalako izan da. Orduan ideia txarra izan dela pentsatzen hasi naiz, ama hain pozik eta askatasunez beterik ikusteak, min egin didalako, ez naizelako gai bere ihesaldiaren arrazoirik aurkitzeko. Eta horrek alde batetik errudun sentiarazten nau, nahiz eta izan ez nire errua.

Zenbait minutu igarota, argazkiak ondo behatzen hasi naiz, berezitasunen baten bila. Sinistu ezinik nago. Arakatzeko baten ostean, igota duen azkenengo argazkia aurreko astekoa dela ohartu naiz, eta gainera, argazkian bere etxea dirudienaren aurrean ageri da. Ondo begiratu ostean, ze kaletan dagoen ikusteko gai izan naiz, eta ondoan aurkitu dudan paper zati batean idatzi dut, badaezpada ere. Iraganari zurrutada hau eman ostean, ohera joan, eta bihar jarraitzea erabaki dut.

Ohetik jaiki naiz zarata gutxi aterata, aitona-amonak ez esnatzeko. Goizeko zazpi eta erdiak baino ez dira, eta berriz ere ordenagailu madarikatu honen aurrean nago, dena berriro aztertzen, zer egin pentsatzen dudan bitartean. Ez dut gauza berririk aurkitu, ezta pentsatu ere.

Denbora luze bat igaro ondoren, bere bila joatea erabaki dut, azken batean nire ama da, eta urteak pasa dira azkenengo aldiz ikusi nuenetik, eta zergatik joan zen jakin nahi dut, noski. Erabakia hartu ostean, motxila hartu, helbidea duen papera poltsikoan gorde, aitona eta amona agurtu, eta ikastolara noala bezala egin dut. Ez naiz oso errudun sentitu gezurra esateagatik, azken finean, gauza garrantzitsuago bat egitera noalako. Autobusera igo, eta martxan nago, bihotzak eztanda egin behar didan bitartean. Hamar bat minutu iraun du bidaiak, eta heltzeaz batera etxea bilatzen hasi naiz. Ez dit denbora asko eraman, pausu bat eman bezain pronto, bertan ikusi dut etxea.



Hemen nago, urteetan ikusi ez dudan amaren etxe aurrean, behingoz iraganeko leihoak itxi eta berriak zabaltzeko prest. Etxeko atera hurbiltzen hasi naiz, beldur handiz, baina aurreratzen ari naizen bitartean, barruan piztutako sentimendu nahasketa hori gero eta handiagoa da, barruan dudan dena jan eta nire gorputzaren jabe egin behar dela sentitzen dut. Arraroa da, arduratu egiten nauelako, barruan dudan munstro honek noraino eraman nazakeen pentsatzeak, baina beste alde batetik, ez zait bat ere desatsegina egiten. Bertan nago, atearen aurrean zutik, firme, zer gertatuko den jakin gabe. Pentsatu barik, eta indar guztiak batuz, txirrina jo dut. Atea zabaldu da, hor dago hainbat urte ikusi gabe izan dudan ama. Hasiera batean, irribarre batek bete dio aurpegia, baina gero, pixkanaka-pixkana, desagertzen joan da. Eta zera esan dit:

- Agatha?


- Bai Ama

- Ez dakit zer esan, urteak pasa dira.

- Badakit, horregatik etorri naiz, zurekin hitz egin nahi dut.

Amak barrura sartzeko esan dit. Barrura sartu naiz. Etxea argazkiz beteta dago, bertan ikusi ditut aitona-amonak, aitaren argazki zaharren bat ere, baina nire arrastorik ez dago, inoiz jaio izan ez banintz bezala. Sofa gainean eseri gara biok, ama-alabak. Denbora pasa ahala, gero eta urduriago ikusten dut ama, ez dit begietara begiratzen, eta ezin ditu eskuak geldirik utzi; ez naiz ezer ulertzeko gai. Galdera bat egitera joan naiz, baina ahoa zabaldu orduko, edateko zerbait eskaini dit, eta ur bila joan da. Bakarrik nago eserita, eta ni ere ezberdin sentitzen hasi naiz. Gutxien espero izan dudan momentuan, barruko zerbait nire gorputza kontsumitzen hasi da, oroitzapenak gero eta argiago ditudalako. Orduan zerbaitek altxatzera eraman nau, eta sukalderrantz joan naiz, ama bila. Ikusi nauenean sustoa hartu du, baina bere urduritasuna ezkututzen saiatu da. Barruan nuena kanporatu da jada, iritsi da momentua. Beste aldera begiratu duenean, urteetan gordeta eduki dudan pozoia atera eta bere edalontzira isuri dut. Inoiz ez diot erabilerarik eman osabaren botikan ostu nuenetik, beti gordeta izan dut, unea iritsi arte.

Orain gogoratzen dut dena: txikia nintzenean gauza bera egiten saiatu



nintzen, emaitza onik gabe, horregatik egin zuen ihes amak. Urteetan gordeta eduki ditudan sentimenduak irten dira jada, bizirik dago ezkutatutako munstroa. Gauza asko aldatu dira txikia nintzenetik, baina nire sustraiek berdinak izaten jarraitu dute, nire askatasunaren gailurrera iritsi naiz.

Egongelara itzuli gara biok, eta hor ikusi dut ama, astiro-astiro bizia galtzen, inoiz edan dudan urik gozoena dastatzen dudan bitartean. Pixka bat itxaron dut, sinistu ezinik nago, urteetako ametsa bete dudalako. Guztia bukatu da, banoa aitona-amonaren etxera bueltan. Ni ez naiz hemen sekula egon.


Ipuinak



*Malen
Goñi Gorritxategi*

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -

Biharamuneko orbainak



Sexuak itsutzen du adimenaren baitan dagoen arrazionaltasun oro. Sexuaren adierarik xumeenak gizakitu eta gizarteratzen gaitu. Sexuaren adierarik bortitzenak gizatiartu eta polarizatzen gaitu. Amaren erraietatik banatzerakoan bihurtzen gara lehen epaiaren subjektu: arra ala emea. Momentu horretan -lehenago ez bada- lehen dikotomia horrek ezaugarrituko du gure etorkizuna izango dena. Nerabezaroan izango du sexuaren inperioak bere adierarik garbiena, bakoitzaren barrenak eraldatu eta jardun bakoitza baldintzatuz...

Artilezko maindirearen mugimendu xeheak lurreratu du Amets sakon iritzi dion gogoeta-saio horretatik. Mugimenduaren iturburuari erreparatuz oldartu zaio egoeraren larritasuna. Egoeretan larriena, gehien urduritzen duena du Ametsek parean.

Gerra bailitzan, bandoak izateaz gain, gudu-zelaia ere hor da. 2 protagonista, bi bando ditu gerrak, eta 15 m²-ko eremua zelaitzat. Inguruneari so egin dio, gudu-zelaia miatu nahian.

Lurrera begiratzean izan du bart gaueko flashback-a. Misterioaren azken muga gainditu izanaren frogek lurrean dautza. Beragandik gertuen, galtzontzillo saretuak, elastikoan ezpainetako gorriak utziriko zigiluarekin. Harekin batera, beroaldiak behartuta saretuak suertatu ziren media beltzak. Alboan, ezer argi bereizi ezin zitekeen arropa-meta.

Pare-parean, leihate zabala, eguzki-printzen lehen zantzuak igaroarazten. Horma, balda, idazmahai eta enparauak ezezagunak bazaizkio ere, ez zaio egoera arrotza egiten. Badu aulki gaineko kamiseta zimurtua jaso, txukun- txukun tolestu eta armairuko tiradera egokian sartzeko pultsioa, baina hain dago gustura maindirepean non ez duen halakorik egingo. Osterantzean, burua biratu eta gerraren beste protagonista horri jarri dio arreta.

Etsaia edo aliatua denik ez daki oraindik, lozorro sakonean baitago. Ez da bereziki ederra, ez du aurpegiak ezer bereizgarririk. Bekokian pikortak dira nagusi, sudurra mako samarra du eta zurrunga betean dabil.

Printzek argituriko gelan ez du berak joan den gaueko gela antzematen. Handiagoa zelakoan dago. Usaina ere -atzo usain-kengarri eta hautsaren arteko nahastea iruditu zitzaiona- desberdin somatzen du, gauez gertaturikoaren eraginez apika. Bezperako flirtarekin gaua igaro osteko

goiza baino jazoera kilikagarriago gutxi dago.

Intimitate eta ezerosotasunaren arteko dantza psikikoa hastear dago. Nor izango da txirritxoaren melodia hausten lehena? gorputz herabetien arteko distantzia ixten lehena?

Ohetik irten, arropak arrapaladan batu eta logelako eskulekua heltzerainoko tartearen kalkulu betean igarri du Ametsek bizkarrezurrean laztana. Amatiarra, laztan kalkulatu begitandu zaio. Badu lehen ziurtasun bat bederen, besteak gelatik atoa botako ez duela eta ez duela printzipioz halako damu kolosalik.

“Haizeak ohiko egarriz

Leizarrak dantzan darabiz

Eskuok zure azal gozoa

Omendu gurean dabiz”

Zornotzar handiuste horren hitzak etorri zaizkio gomutara ferekek norabidea aldatu ahala. Aldamenak ikusi ezin duen arren eta maindireak ondo estali arren, barrena izoztu zaio Ametsi tirrinean zirkunferentzia-gisako trazu txeratsua antzematean.

“Ze ordutan bizi gaituk?” galdetu dio, gauak sorturiko atmosfera hauskor hori apurtuz. “Berandu akaso, bazkaltzen gera haiteke”. Schopenhauerrek deskribaturiko desoreka hori, norbera dena eta izan nahi denaren artekoa, kasu honetan esaten duenaren eta esan nahi denaren artekoa agerian da. Ametsek berak ere ez du argi zer nahi duen.

- Sukaldari ona haiz?

- Tira, moldatzen naun.

- Pasta eta arrautza-frijitua baino zerbait gehiago egin diezadakek?

- Ondo portatzen bahaiz, bai.

Jagi egin da Amets, bazkari-gosez. Dilisten txirrinta du, txorizo eta guzti. Aterantz joan da, kideak jarraituko diolakoan. Ez du mugimendu-soinurik igarri ohearen beste aldean.

- Ez al hator?

- Hasi hadi hi, segituan noan ni. Hozkailuan egonen dun tupperren bat.

“Koitadua, nekatu egingo nian”. Zorutik jasoriko kamiseta eta kulerotan irten da logelatik, bidean, mesanotxetik mugikorra jaso du. Garrantzizkoa izan ohi da lagunei bizirik, “sana eta salba”, zaudela jakinaraztea. Nebak idatzi dio, berak ezin duela eta joan dadila amaren bila terapiatik bueltan.

Tripa-zorriak somatzean akordatu da bere eginkizunaz: bazkaltzeko zer edo zer bilatzea. Begiratu batean, etxea bera ere ez zaio estetikoki bereizgarria iruditu. Etxe espainoletan hain ohikoa den pladurrezko hormadun egongelara sartu da. Begiz jo du diskoz beteriko kutxa bat. Musika da inor ezagutu eta epaitzeko tresnarik fidagarrienetakoa. Tentuz, mesfidantzaz, jakinminez hartu du magalean zumezko kutxa karratua. Gure bi pertsonaien arteko erlazioaren patua disko bildumak erabakiko du.

Diskoak, hautsez mukuru batzuk, erosi berriak besteak. Sailkatuta ere, era metodikoan daude, generoz. “Klasikoak” gisa izenpetuta, bertan ditu Sting, Janis Joplin, Led Zeppelin, Winehouse eta The Who. Gurasoek ondo heziriko mutila den marka. Laboa, Urdangarin, Lete, Tapia eta Leturia ere bertan daude, euskaldun oroengan “aberria” delako horren tasuna azaleratzen duena.

Ordorikaren “Hamar t’erdietan” zuten lagun Gurutzetarako bidaietan Amets eta aitak, Zitroen Xsara gorri herdoilduan hiriburu bizkaitarra bisitatu behar zuten aldiro. Atxagak Bilborengan somatzen zuen “denboraren oihal xinglea”-k estaltzen zuen Amets domekaro itxarongela ospelean. Eta itxarongelan, itxaropena.

Diskoa alde batera utzi du Ametsek, ez du malenkoniarako apetarik. Kutxa aurkitu zuen bezala laga eta oraingoan bai, sukalderantza egin du janari bila. Kuxkuxera da izatez eta ezin izan dio apal, tiradera eta zoko bakoitza miatzeko gogoari eutsi.

Ganorazko laban baten bila gibebez zegoela harritu du adiskideak. Ezustean hartu du bere atzamarren ausardiak, ez besarkatze hutsagatik, bart ezaguturiko norbaiti halako sentikortasuna adierazteagatik baizik. Aldaketatik hasita, saihetsetan atsedean hartuz, inguratu egin dute haren eskuek. Irrizkoa da panorama, intimitate erakustaldi bihotzetikoan bata,

medusaren begiradak izoztua bestea. Dantza psikikoa, inoiz dantzarik izan bada, ebatzia izan berri da.

Zalantzati, aurkitu berria zuen labana askatu eta esku ausartien gainean jarri ditu bereak, haien bidez, haiei esker, bihotzaren taupada kaotikoa entzunez eta gorputz-hizkuntza unibertsalean sarbidea, onespena, ameto emanez. Zeri? galdu izanari.

Norbanakoak bere bihurtzen ditu bilakabidean aurkituriko zoriontasun une eta beldurrak, orbainak bailiran. Nahi eta nahi ez, orbainak dira pertsonen bereizgarririk nabarmenena. Bada, orbainak zauri bihurtzea da galtzea.

Amets gauetz ikutua izan zen, lerdenki, aurrera, atzera, gora, behera, 150 km orduko martxan. Gaua medio, esku grinatsuentzat sumaezinak ziren bakoitzaren orbainak. Ilunabarrean lizunkerian horditurik, biharamunean ajeak nahasturik.

- Topatu ahal dun jangarri dagoen zer edo zer?

- Pasatzen uzten badidak, hozkailuan begiratu zezakeat.

- Umm... gustura nagon gauden bezala.

- Oinutsik hago eta egundoko marranta hartuko duk, jar itzak galtzerdiren batzuk.

- Zer haiz hi, nire ama ala?


Amak bernizezko zapatak jantzi zitzaion agintzen zion igandero, Bilbo jaunxkilez beteta zegoela eta behar bezala jantzi zedila. Aitari so egin eta zapatak zatarrak ote ziren itauntzen zion. Hark ezetz ziotson. Aitaren gezurrak larruazalean itsatsita ditu, azazkalekin urratuta ere ezin askaturik.

Telebistaren mandoa konplikatuegia zela zioen, baina ez zekien nola erabili.

Hitza mihiaren puntan zuela zioen, baina ez zekien zein zen.

“Ia egunsentia da” kantatzeak nagia ematen ziola, baina ez zekizkien hitzak.

Egarriak esnatu zuela eta horregatik topatu zuela eskaratzean, baina ezin



zuen lorik egin.

Bere ameslari txikia, bere kuttuna zela, baina ez zekien nor zen.

Gaueko desenfrenoak, desiraitsuak, giltzapetu egin behar zuen oroimena. Ametsek goizaldean senari uko egin behar zion, hitz-aspertuan bazkaldu eta alde egin behar zuen. Sexuak zapore berri bat ematen dio egunari, oroimenean ezdeus erabat, eta soilik orainaren menean du indarra. Pisutik irten bezain pronto ahaztua izan beharra zeukan.

- Askatzen bahaut, ezabatuko al dun bekozko ilun hori?

- Zer bekozko eta bekozko ondo!

Tinko ebatzen zuten besoak laxotu egin dira, Ametsek hozkailurarteko pausua egin eta besoa luzatzeko beste. Plater bi, sardexka bi, edalontzi bi eta pertsona bi dira mahai bakunaren inguruan. Dilistak jan dituzte giro alaian. Txorizorik gabekoak. Atera arte lagundu du agur-unean. Telefonozenbakia onartu dio eta idaztearen promesarekin irten da. Besarkadarik ez, badaezpada.



12
II


Ipuinak



*Leire
Vargas Nieto*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

Egunero



Gero eta zailagoa bihurtzen ari zaio eguneroko atazak burutzea.

Ezin da gogoratu zehazki noiz hasi zen joera hau, noiz hartu zuen akidura ezezagun honek bere gain. Hainbat hilabete behar dira izan dagoeneko, agian urte bete. Argi mihise fin batean zehar bezala irudikatzen ditu iraganeko eszenak, betiko galdutako erreinu baten erakusgarri bailiran, lasaitasunaren eta zorientasunaren erresuma.

Negar batean agertzen den eszenak, zorientasun izpi nimiñoenak baino gorde ezin dituztenak ere idilikoak iruditzen zaizkio, perspektibaren azpijokoek eragindako ikuspegia dela dakien arren. Ezinezkoa zaio bere burua bilbe para lotu eta arrazionalizatzeraz eramatea, duela urte bi esku artean zuenaren eta gaurkoaren arteko hurbiltasuna ikustera, azken hilabeteetan daraman bizimodua apreziatzeko beste.

Izan ere, azken aldiko akorduak apenas irudika ditzakeen; itsaso ilun bat imajinatzen du garaiotan bizitzako denbora-lerroa gogoan marraztean, mundrun isuri baten eran, hedatzen-hedatzen doana.

Alkaterna horrek berak gorputz-adarrak harrapatu dizkiola sentitzen du lantzean. Besoak pisutsuak begitantzen zaizkio, papera eta boligrafo edo ordenagailua hartu eta esaldi sinple bat idazteko pisutsuegiak. Baita zangoak ere ohetik jaikitzeke, baina hauek, aldi berean, mendreegiak dira enborraren zama astuna euren gain hartzeko. Batzuetan, isuriak adarretan gora egin eta kokoteraino lotzen du.

Horregatik, aldiro gutxiagotan jaisten da herrira. Herri txikia da, ez luke zalaparta handia jasan beharko egingo balu ere, baina etxea eta hura banatzen dituen berrogeita bost bat minutuko ibilaldiak kale asfaltatua ez zapaltzeko zientoka arrazoi zerrendatzeko tartea eskaintzen dio. Zarata handirik ez dago, noski, baina so guztiak daude beragan espaloian zehar doala, presaz lasterka edo lasai doan, bekainetan keinu zimur bat edo beste daraman epaitzen. Denek dakite bere izena, denek dakite egin duena eta egiten egon beharko litzatekeena. Alta, kalean promenatzen egon ordez burutzen egon beharko litzatekeen lan guztia.

Eta berak ere ezagun duen jendearekin egingo luke topo, elkarrekintzari dagozkion agur, zer moduz, eta, are, haien erantzun derrigortuekin bat. Bistan da galdetuko lioketela lanari buruz, eta berak erantzun anbiguo bat

emango luke. Eta solaskideak, segurutik, ez luke gehiago galdetuko, hanka sartzeko beldurrez, nolabait hurkoa izanagatik ez balitzateke gai bere lana xeheki deskribatzeko, eta itaun zehatzak egiteak agerian utziko lukeelako hori. Baten batek izango zuen disimulu bako galderaren bat egiteko haina ausardia edota lotsagabekeria, ordea, eta botako zion ea zer proiektutan dabilen orain, ea noiz izango duten erakustokietan bere izena tipografia berrian leitzeko parada. Galdera irribarre batekin etorriagatik, berak ikusiko lituzke haren erroan zeutzan harrokeria eta burla, eta hotzikarak laztanduko lioke bizkarrezurra, segundo batzuek izoztu eta paparra harrizko somatu ostean.

Gaitza litzateke, bada, galdera horiek erantzun errealik ez baina misterio kutsu bat inplikatu zuten ihardespeneekin arbuiatzean konbentzitzeko modukoa izatea. Baina ez da askoz hobe itaunketa zehatzik eza, horrek espektatibarako tarte handiegia uzten duelako, non mintzaideak bere jardunaren aldaera mitifikatu eta edulkoratu bat irudikatuko zukeen, ostiko batez uxatzeko moduko frustrazioak baino barnebiltzen ez dituen. Berak irudika dezake nola ikusten duten besteez, ordu luzeetan zehar idazmahaietan eserita, ezpainei hozka arretan murgilduta, atzamarretatik berba erreka emankorrek jariatzen. Buruan presio uneko bezain zorrotza sortzen dio argazkiak.

Akorduan du duela hiru bat urte izan zuela egunero-egunero idazten zuen garai bat, bere lehen nobela, eta nolabaiteko arrakasta suposatutako dion bakarra, sortzeko prozesuan zegoenean. Arrakastatsua izan zen ez soilik zenbait kritikek laudatu zutelako (bere inguruko kritikarien munta-faltak meritua kentzen zion horri, gainera) eta espero baino gehiago saldu zelako, baizik eta ordutik -hots, lehenengotik- ez duelako beste lan literariorik bukatzerik lortu. Ez, bederen, bere barneko nahi edo grinatik sortutakoa. Enkarguei esker egiten du aurrera autonomo lez izena eman zuenetik, eta denbora luzea ematen du kalkulu matematikoak egiten. Enkargu honek hau dakarkin, eta honetan eta horretan hainbat joango zain...

Beste nobela bat idazteak zerbait ekarriko zukeen, segurutik. Hilabete batean lan kopuruak behera egiten duenean lo egin ezinik ibiltzen baita, eta bigarren argitalpenarekin arrakastatsua izango duen bere izena lehen lerroan jarriko luke. Aipatu argitalpena entzutetsua izan beharko litzateke, jakina.

Eta hemen dago bera, edonola ere, egongelan eserita egun osoz, dokumentu berri bat sortzeko gomuta soilak birikak uzkuratzen dizkiola. Nolabaiteko atzeko plano bihurtu zaio teklatuaren eta dokumentu hutsaren zuri-beltzeko koadro hori buruan, ordea, jasanezina zaion irudi bat, inoiz ez litzatekeena egikaritzera heltzeko gai. Argumentuen ideiek gogoaz zulutzen diote, inora helduko ez diren desiren mosaiko bat osatuz, zaborretara botatzeko imintziora egin arren, hurrengo egunean beti mahai gainean, azaltzen zaiona gainazalaren zentroa hartuz, ukaezin.

Eta herrira beribilean bajatzea ere... zertarako? Gero autoa uzteko lekua topatu behar, zentzumenak arrunt piztearekin batera, begiak zabal-zabalik, dena ikusteko beste... Gehiegi ikustea ohitura ezeroso bihur daiteke, inondik ere. Ederra da mendi elurtuak ikuskatzean arreta jartzea, orbelen dantza hautemateko eta animalien arrastoak aditzeko adina. Baina herrian ez dago horrelako parajerik, eta horregatik aldatu zen berriz hurbileko tontorrera erdibidean kokatutako auzora, bera hazten ikusi zuena eta gurasoen bizileku izaten jarraitzen duena.

Ia auzoaren beste muturrean bizi da bera orain -gurasoengandik gertu egon baina bakean arnasa hartu ahal izateko moduko distantzia iruditu zitzaion etxearen kontratua sinatzerakoan- eta eurenerako paseoa da egunotan maizen egiten duen ibilbidea. Gaur ere, krema koloreko hormak irensteko puntuan zeudela nabaritu eta arin egin du ihesaldia aurreko ate sendotik, presaka lez jantzi eta gero. Berriki usu janzten duen arropa jarri du soinean, gainezka egiteko puntuan dagoen armairuaren ikuspegiak sortutako frustrazioari oldartzeko paradarik ez emateko azkar batean hautatua.

Errepide ertzetik hasi da gaur ekialderanzko ibilaldia egiten. Eguerdiko eguzki epelak hein batean aurre egiten dio ipar haizeari; alabaina, jela zitzadak sentitu ditu etxearen babesa uztearen ondotik, jakaren azpitik jertse lodia, neguko elastikoa eta leporako zapi luzea bueltan-bueltan badaramatza ere. Beti erasaten du hotz zorrotzak kalera irtetea, etxean tapaki lodiekin estalita ematen baitu eguna, ia urte osoan zehar. Neguak eskatzen zuenean berogailua piztearekin nahikoa izan ohi zuen aspaldi, akorduan du, baina momenturen batean hiru hilabetero heltzen zitzaizkion kobrantza-agirietan zenbaki arranditsuegiak azaltzen hasi ziren;


ezin esan gastu handiagoak edo diru-sarrera murrizagoak eraginda. Orain gauzagitza zaio manta lepoan ez daramala egitea gelatik sukaldarako bidea, eta hala ere, inoiz gutxi nabaritzen du benetako epeltasuna.

Txiki-txikitatik etxean egotearekin lotzen du hego-mendebaldean ageri zaion mendi sorta, oinarrizko matematikekin hasi aurretik ertzetik ertzerantz izenda zezakeena, aitarekin atariko bedartzan eserita ingurua aintzat hartzen emandako orenen ordain. Aitarekin ikusi-makusian ibiltzen zeneko hamaika foto-sekuentzia pasatzen zaizkio burutik, nola etortzen zen ama ostean eta mahai gainean edariak paratzen zituen, zukua udan eta txokolate beroa neguan beretzako, eurek ardo gorri marroixka ahoratzen zuten bitartean.

Orduan amak liburu kuttunen bat, Kubatik ekarritako Siglo de oro bilduma edo Gloria Fuertes-en antologia zabaldu eta zer edo zer irakurriko zuen, irribarreak zabaltzen-zabaltzen joango zitzaizkien bi entzuleei uneoro, errima zainduek eta majia lorratzek eraginda berari eta, segurutik, edari gozoak bultzatuta aitari. Eta gero bera hasten zen bere historiak kontatzen: hamar bat kontakizun zituen ohikoenak eta pittin bat aldatzen zuen bakoitza aldiro, eta berak adi-adi entzuten zuen narrazioa, aurrekoan ageri ez zen xehetasunaren inguruan edo azken aldian sortutako hariaren noranzkoa aldatzen zuen detaileari buruz. Aitak benetako bihotz bako saiakera egingo zuen erantzuteko, hirurek bere koherentzia gabeziaren lepotik barre egiten buka zezaten.

Orain egotedun mendiei begira da birrikak guztiz betetzen zituelako sententzia zeukan une bakanetakoa. Euren irudia, larre berdeen atzetik eta zeru aldakorarekin bat, hain zen betea, hainbeste arreta eskatzen dion ertz txikiena ere barneratuko badu, ezen inongo erru sentipenik gabe lekuko huts izateko baimena ematen baition. Horrela, bide ertzean oinez, deskantsatzeko parada dauka, lau hormen artean zamatsuegia dirudien guztia arintzen delako bat-batean nolabait.

Aurrera egiten du, ordoki laburrean ere gorantz so. Ezkerrera daukan zuhaitz fin andanaren artean dabilen ahuntz bat ikuskatzen du, ahoa beheratuta zerbaiti hozka egiten. Ageriko arrazoirik gabe, dokumentu zuriaren irudia datorkio ustekabearen gogora, eta duela egun batzuk bururatu zitzaion argumentu bati heltzen dio tiraderatik, ama haurdun dagoela



71

deskubritzen duen nerabe baten kontakizuna, eta eman liezazkiokeen bilakaerak janzten dizkio istorioaren hezurdurari buruan. Hau izango da, beharbada, istorioa. Ez dirudi hain ideia eskasa. Nobela on bat irten liteke hortik, bai.

Idatzi edo ez idatzi ere, edonola, kontuak ez du pisu handirik orain. Zer aldatuko dun batak ala besteak, belar umelaren usain freskoak sudurzuloak hartzen dizkinean, hain txikia haizenean. Zer axola dun.

Auzokoen etxeen ondo-ondotik ere igarotzen da, baina distantziara daude, fisikoki ez bada ere, urruti sentitzen ditu. Bera hor ez balego lez, paisaia bera barik existituko balitz bezala. Paisaia huts. Izan ere, auzoa inguratzen duten mendiek ez dute bere beharrik euren izatea aldarrikatzeko. Bera munduratu aurretik ere han zeuden, eta ostean euren baitan, euren magalean hastea egokitu zitzaion, baina eurek ez dakite hori; bera hauts bihurtzean ere bertan jarraituko baitute. Isil. Handi.

Bide ertzeko etxeen atarietan ez du inor ikusi gaur: harrigarriki erraza litzateke lurralde desertiko batean bizitzen delako plantak egitea, bakarrik dagoela sinestea. Tentagarria zaio pentsamendu hori, eroso. Hurbil du gurasoen etxea, edonola ere, eta irudikatzen hasten da gurasoen erreakzioa beste egun batean ere euren euren ikusten dutenean, aurrekoan han izan zelako, eta ez herenegun baina bai hiru egun lehenago. Irudikatzen du euren bisaia ardura ezkutatzeko saiakeran dagoen irribarre batek zeharkatua, euren berba samurrak eta galdera lausoak, jakin nahi dutena kontatuko ez diela jakitun.

Gurasoei gustatuko litzaieke herrira jaistea, maizago elkartzea lagunekin. Sekulan ez dira bikote-kontuetan euren iritzi edo gurariak beste barik ezarrizaleak, bera deseroso sentiaraz lezaketen iruzkinak eurentzat gorde dituzte, eta, trukean, irekia izan da bera beti, kontatu izan die bere bizitzan han eta hemen gertatzen zebilena. Norekin ibiltzen zen, gehien lotzen zuten lagunak zeintzuk ziren. Zelan azaldu orain, ordea, inorekin biltzeko gogorik ez zuela? Edozein plan buruan irudikatzean hutsaltasuna baino ez zuela ukitzen, beteezin begitantzen zitzaiola bere barnea? Eurek galdetuko diote ea hitz egin duen Xabat edo Mariarekin azken aldian, ea nola dabilzan, behinola lagun min izandakoekin lotura izaten jarraitzen duela entzun guran. Berak ia edo guztiz asmatu beharko du beraiei buruzko

nobedadea.


Berdin sentitzen da ezgai azaltzeko beti ipar izan duen sorkuntza, bere hautu pertsonal eta profesionaletan pisu handiena izan duena, bere gaineko zama dabilela bihurtzen. Jada ez dakiela esaten bost berba bata bestearen ondoan paratzean kalitatezko zerbait ikuskatu duen, merezi duen bidea zabaltzen jarraitzea, batzuetan esaldiak zentzurik ba ote duen ere ezin duela erdietsi. Ezen ez du irtenbiderik ikusten bihar argitsuago baterako. Ez dago beste biderik beretzako, huts egin du dei egin zion estratan, berak hautatu zuenean. Eta orain giltzapetuta dago ulertzen ez dituen emozioen erakusgarri eta eragile izan nahian, berak gero eta harrizkoago hautematen duenean bere burua.

Noski ezin diela halako ezer esan. Betiko koplak motzak errepikatuko dituela badaki euren atarian zehar harri solteen bidea egiten duen bitartean; alabaina, amaren berba goxoek, nahikoa den bizitza sinple baten deskribapenek, eta aitaren ekarpen umoretsuek inguratuko dute beso epelak bailiran. Eta amaren azal zuri bigunari so egin eta berriz bere barrura sartzea desiratuko du beste ezer baino indar handiagoz, berekin bat egitea eta beragan bizitzea inori geratzen zaizkion urteak.

Lorategia gurutzatu eta ate aurrera heltzean ikusi du zerrailatik zintzilik daudela etxeko giltzak, zortzi bat giltza biltzen dituen sorta pisutsua. Ez da gurasoen ohitura horrela uztea, inoiz ez du era horretan aurkitu sarrera, eta harrituta eman dizkio bueltak burdinari eta barrura egin du.

Ozen bota du agurrezko diosala korridoreko lur hotza zapaltzean, baina ez zaio erantzunik itzultzen. Atez ate doa gela bakoitza miatzen, baina gurasoen arrastorik ez etxe osoan. Ez daude. Atzeko belartza ere begiratu du, eta ezer ez. Garajera joatean ikusi du Picasso grisa falta dela, kanpoan direla. Joan egin dira. Berari deus esan gabe. Usu joaten dira biak batera erosketak edo ibilaldiak egitera autoa hartuta, egia da. Baina ez zaio aurretik gertatu gurasoenera joan eta eurek beste jardueraren baten egotea, bisita zapuztea, eurek plana eginda izatea, bera barik. Bera abisatu barik. Eta giltzak atean utzita gainera.

Giltzak atean jarrita uzteko adina galduta daude gurasoak ja, beraz, halako oinarrizko hanka-sartze bat egiteko beste. Hirurogeita hamar



urteen bueltan, argi dago burua joaten hasita dutela; ukaezina zaio orain. Hemendik atear zuzenean zabalik uztera igaroko dira, ezta? Eta kandelak piztuta, txorrotak zabalik... harik eta berak hutsegitea leuntzeko aski zori ez duenera arte, dei bat jasotzen duenera arte, zerbait gertatu dela dioen deia. Buruan ikusten du sekuentzia osoa eta irudikatzen du nola aita eta amaren besarkada indarra galtzen joango den, nola aldatu behar izango den laztanaren noranzkoa eta bera izan beharko den eurek heltzen dituen.

Besarkada desitxuratuaren imajina buruan iltzatuta egiten du atzera buelta korridorean zehar, ia korrika, gainera datozkion hormetatik ihesi. Nork eutsiko du bera orduan? Kanpora irten da berriz eta ateko harmaila bakarrean eseri da, mendiei begira. Nork? Gurasoak ere txikiak dira parean dituen tontorren ondoan, bera bezain txikiak. Bera baino iragankorragoak, gaur. Burua beso artean ezkutatu du une batez, baina, bular artean oldartzen ari zaion olatu zakarrari men ez egiteko saiakeran, jaiki eta landatxoak gurutzatu du pausu luzez, pilotu automatikoarekin legez etxera bidea hartuz.

Giltzak ate nagusiko zarrailan ahaztuta, kandela piztuak egongelako apalategi ertzean, sukaldeko kanila ura isuri eta isuri... Arnasa arintzen eta arintzen doakio aldapetan behera egiten duen heinean, pausoa bizkortzen du berak neurri berean, bista lauso du, tantak begien ertzetatik bidaltzen ditu eskuarekin, zakar. Eite iluneko figura bat atea irekitzen, kandelaren garra ondoko liburuei lotzen eta zabaltzen, zabaltzen, ura harraskaren ertzetatik gainezka egiten, lurrean zehar hedatzen eta hedatzen, kandela mahai-zapi gainean iraulita eta gainean bera baino urte gehiago dituen jantokiko mahaia sutan... Eta nork helduko du bera? Nork salbatuko du?

Aspaldian egin ez duen bezala doa korrika. Eta, halako batean, etxera ailegatu da.

Ez daki zenbat denbora daraman atondoko lurrean uzkurtuta, horma hotzaren kontra, ateko txirrina entzuten duenean, karrankari buru gainean.

Zutik jarri eta bere buruari begiratzen dio sarrerako ispiluan. Begiak gorri ditu, handituta inguruak. Ateaz bestalde du zain bisitan datorkion denadelakoa, haatik, ez dauka krema edo makillajerik jartzeko denborarik. Edozer, pentsatu du, eta atea zuzendu da, mototsetik askatutako ileak


nolabait kolokatu eta gero.

Espektatiba barik zabaldu eta Ane aurkitu du bertan, auzoko neska bat, bera baino hamar bat urte gazteagoa. Txiki-txikitatik ezagutzen dute elkar, eta adin tartea nabarmena izanagatik, harreman estua izan dute tarte batzuetan; Anek nerabezaroa igaro osteko urte pare batean zehar, bereziki, nahiko egiten zuten berba, auzotik itzulia egitera irteten ziren batera noizean behin. Unibertsitateko ikaslea da orain Ane, alta, eta denbora gehiena auzotik kanpo eman du azken urtean. Han-hemenka bidaltzen dizkio mugikor bidezko mezuak, bion interes komunitatik tiraka maiz. Berak ere interesa baitu sormenean, artean, eta aldizkari interesgarriren bateko artikulua bidaltzen dio egun batean, irakurgai gomendio bat hurrenean...

Egiari zor, Aneren azken mezu gehienak erantzunik gabe joan dira. Irribarretxo batekin zabaltzen baditu ere, azkar galtzen da koloretako sinboloen eta harridura-ikurren andanan, eta egunak behar izaten ditu batzuetan bere burua ganorazko testu-erantzun bat artikulatzera behartzeko. Bidalitakoa laudatzeko bada ere, ohikoan bezala. Duela pare bat aste kanta bat bidali zion, ezagutzen ez zuen talde batena, zeinetan andrazko ahots indartsu batek askatasunak amodioan duen garrantziari pisua ematen zion, batek nahi duen bezala tratatua izateari. Biziki gozatu zuen kantua, begia itxita, oilo-larrua eragin zion une batez. Saiatu zen erantzuten ostean, baina idatzitakoa hutsalegia begitantzen zitzaion inondik ere, generikoezia. Murgilduegi zegoen aztertzen zein izan zen norbait hala maitatzeko bulkadak hartu zuen azken aldia, besteak berekiko estimuak luze iraun zezan erregutzeko beharra. Eta ez zuen Aneri hura aitortzerik.

Edonola ere, goxo agurtu du gazteak, besarkada leun batekin. Banatzean, ordea, eitean nabaritu dio bere begi gorrituen esanahia aztertzen dabilela buruan; bekainak zimurtu ditu. Zelan dagoen galdetu dio. Ondo erantzun du berak, hemen, betiko martxan, badakizu. Nola erantzun guztia eskatzen dizun galdera bat ezertxo ere esan gabe. Gehienetan egiten duena, halarik ere.

Bueltan galdetu dio bere egoeraz, eta Ane gehiago luzatu da erantzunean, azaldu dizkio eskoletako buruhaustak, pozik dagoela hirian, alabaina.



Faltan hartzen dituela mendiak eta beti dagoela aire zertxobait garbiagoa arnastera bueltatzeko gogoz aste amaieran. Luzatu du solasa, baina bere erantzun laburrak ez dira lagungarri jarraitutasunari begira. Ez dio klaseez gain zertan dabilen, ezeri forma ematen ote dabilen galdetu gura. Eta isildu egin dira.

Ane ingurura begira dabil, ezpainari hozka eginez, eta erruak kolpatu du bera bat-batean, sakonago itauntzeko gauza ez izatearren, bere burua parean duen neska barrura gonbidatzera behartzeko indargeegia. Bere egunerokoan izpi fin bat behintzat izateko saiakera egun duenari.

Ihes egiteko behar menderakaitza etorri zaio kolpean, ez du bisitaren zioa konprenitzen, eta Anek nabaritu duela dirudi, Gauzatxo bat ekarri dizut baitiotso, inguruan eraturako isilunea ebakiz. Eskua luzatu dio orduan pakete txiki bat eskaintzeko, paper zuri hutsean bildua. Berak onartu dio, aho zabalik, eskerrak nola eman jakin gabe. Eta luze baino lehen alde egiten dabil Ane, heldu den leku beretik. Egunak ilundu du dagoeneko.

Pisu harkaitz bat nabaritzen dabil sorbaldak neska aldentzen ikusten duen heinean, errua eta amorruren nahasketa bat, Aneren begietan begiztatu duen nahigabe txikiaren aurrean, ezgai izan delako bisita onartzeko ere, oparia eskertzeko. Haserrea, behar bezala funtzionatzen ez duen bere buruarekiko, mugitu nahi ez duten gorputz eta ezpaineakiko. Eta mina. Beste ezeren gainetik. Sastatzen duenari izena jartzeko ezintasunaren aurrean. Ulertezintasunaren aurrean.

Atea itxi du azkenean, eta esku arteko paketeari begiratu. Orduan nabaritu du objektuak txartel txiki bat duela itsatsita atzealdean. Askatu eta hurbiletik aztertu ditu idatzitako bi berbak, letra garbi eta elegantean: Maite zaitut.

Irakurritakoari zentzurik emateko ezgai, ohera sartu da, paketea mesanotxean utzita.


Olerkiak



Jara
Martin Muñoz

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean
- Landako Eskola -

Ortzadarra pandemia garaian



II
21

Zortzi koloretakoa da
aurten ortzadarra.

Baina zergaitik?
Aurten bizi izan ditugun
gorabeherengaitik.

Kolore gorria,
hasarrengaitik.

Kolore horia,
lasaitasunagaitik.

Kolore laranja,
pazientziagaitik.

Kolore berdea,
ospitaleko gaixoengaitik.

Kolore urdin argia,
tristuragaitik.

Kolore urdin iluna,
erizain eta medikuengaitik.

Kolore morea,
emakume indartsuengaitik.

Eta kolore zuria,
olerki hau
eta pandemia
ondo bukatuko dela jakiteagaitik.

Olerkiak



Maddi
Etxebarria Ormaetxea

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -

Barneko txoria



txori bat daukat barrenean
txori bat dantzan
txori bat daukat barrenean
txori horrek baditu hegalak
txori horrek baditu koloreak
baina txori hori ez da irteten
ez dauka aterik
ez dauka leihorik
baina kaiolak badauka giltza
giltzaren ondoan nagoenean mundura irteten da
kolore guztiekin
edertasun guztiarekin
nahiz eta jendeari koloreak ez gustatu
nahiz eta kolore grisa bakarrik nahi
ez zaio besteen iritzia axola
ez zaio besteek diotena axola
nire txoria hegaz dabil
nire txoria pozik dabil
baina iritsi da kaiolara joateko ordua
kaiola grisera
giltza urrun doa
eta kaiola itxi da
txoria barruan dago
ezin da irten
ez du irten nahi
beldurra du

Olerkiak



Danel
Barrutia Narbaiza

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -

Zure beldur nintzen



11/21

Egunero etortzen zinen,
eta gauero nintzen zure beldur.
Argia pizteko beharra sentitzen nuen,
ikara hura desagerrarazteko.

Gauetan zu zinen nagusi
eta zurekin batera,
baita nire beldurra ere.

Korridorea, zu bertan zinela igaro nahi nuen,
baina bide erdian bertan,
dardaraka hasi eta
argi pixka bat behar nuen.

Gauero lo egiteko gogo kentzen zenidan,
eta gogo hura berreskuratzea zaila zen.
Baina logura berreskuratzean,
amets txarrak bakarrik ekartzen zenizkidan.

Ikara hura gainditzeko asmoa nuen,
baina saiatzerakoan atzera botatzen nintzen.
Behin eta berriz saiatu bai, baina,
saiatu arren, emaitzarik ez.

Urteak pasa ahala, konturatu gabe,
nire lagun bihurtu zinen.
Eta elkar-ezagutze horrek
gauza onak baino ez zituen ekarri.

Orain dela urte batzuk, txikia nintzenean,
zu gainditzeko saiakerek porrot egiten zuten.
Baina gaur egun ez dut saiakerarik egin behar,
denbora asko pasatu delako zu gainditu zaitudanetik.
Egun, orduak pasatzen ditugu elkarrekin,
lagun bat gehiago baitzara.
Beldurra baino gehiago,
ziurtasuna ematen didazula esango nuke.
Eta zure beldur nintzen egunek
barregura bakarrik ematen didate.

Olerkiak



Nerea
Etxaburu Mintegi

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -

Gustatuko litzaidake



Gustatuko litzaidake itsasoaren aurrean jartzea
eta izan ginenari buruz hitz egitea.
Gustatuko litzaidake biok hondartzara joatea
ulertzea nola olatuak bezala lagunak etorri eta joan egiten direla
jaio eta hil egiten direla
eta haiekin batera bizi izandako momentuak ere eramaten dituztela

Gure arteko laztanak sentitzea
zure besarkada amultsuak ni berotzea
zure hanka txikiak nire altzoan habia egitea
zure miaskada luze bezain bustiak sentitzea
eta denak zentzua berriro hartzea

Eta zergaitik joan zaren jakitea
hain denbora gutxian eta ez gaztigatzea
agurtzeko denbora ez edukitzea
baina bai sufrimendu barik joatea

Etxera heltzean zu lehena nigana etortzea
triste nagoenean nire ondoan jesartzea
nirekin jolasteko beti prest egotea
eta goizero ohetik jaikitzean nire esnagailua izatea

Egun hartan joan zinela jakindakoa
nire mundua beltz bihurtu zen
Anbotoko kobazuloko iluntasuna bezala
bizitzak nire erdia eramango bailuen


Oraindik ere zin egin nizun modu berean maite zaitut
gure oroitzapenak gordetzen ditut
eta bizitzak zuk alde egitea nahi bazuen ere
ezin izan zaitu nire burutik erauzi

Ikusi zintudan lehenengo eguna gogoratzen dut
zu hain goxoa eta hain txikia

baina bai zeneukan
bihotz bitxia

Orain soilik geratzen zait
guri buruz idaztea
ez da erraza, ahaztea
gogorra, latza eta zaila da
joan zarela onartzea

Zure galerak hutsune itzela utzi du nire bihotzean
baina badakit egin duzula hegan.
Horregaitik beti eramango zaitut nire ariman
ez denbora luze batean
berriro elkartuko garela jakitean
badakidalako zaudela beste leku batean



OLATVAK
BEZALA

Ilona


Olerkiak



Ainhoa
Urien Telletxe

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

*Bolero bat
entzun nahi dut*



Zabalburu.
Igande goiza.
Arkupeetan agure bat
atzera eta aurrera
pausua baldar,
burua makur.

Ahopean kantatzen du:

“en un campo de amapolas rojas”

Munduak bere martxa jarraitzen du.
Noiz gelditzen da ba?
Polizien sirena-hotsa,

kolore guztietako pertsonen joan-etorriak.
Autoak abailan,
autobusa bozina hotsean,
korrika eta presaka.
Burrundara.

“en un campo de amapolas rojas”.

Badirudi mundua geratu dela
atzera eta aurrera egiten duen espazioan.
Inguruan
denborak aurrera jarraitzen du.

Emakume beltzaran bat pasa zaio ondotik
eta pausu arineko dantza bat egin du
gizonaren ahotsaren konpasei jarraiki.

Poesia loratu da porlanezko oihanean.

Pertsianen zirrikituetatik
ikusten dut kalea.
Eguzki izpiak sartzen dira
eta amapola gorrizko zelai bat irudikatzen dut.
Bazkalostea da,
nagi giroa dago.
Bazkalostea da
eta irratiko lokutoreak badaki.

Bolero bat entzun nahi dut
bazkaloste bakoitzean.
Nostalgiaaren ahots horiek nahi ditut
nire digestioaren bidelagun.
Zirenik ere ez nekien hitz horiek entzun nahi ditut
ozeanoaren bestaldeko eztarrietatik ateratzen,
kafesne batekin
bazkaria amaitutzat ematen dudan bitartean.
Mitifikatutako paisaiak ekar ditzatela nahi dut
bazkalondoko nagiazen lekuko izan daitezen.
Bolero bat entzun nahi dut
bazkalosteetan elkarrekin etzaten garen bakoitzean.
Ondoko gelan jarri altaboza
eta pertsiana pixka bat jaitsi
eguzki izpiei sartzea guztiz ukatu barik.
Nire bazkaloste bakoitza goxatuko duen
bolero bat izatea nahi dut.



Bertsoak



Irati
Gallego Etxebarria

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -

Athletic



IL
-21

Athletic gorri zuri
da gure ekipoa
maskota da lehoia
hori bai guapoa
handia ta polita
da gure kanpoa
Athletic da gurea
baita Bizkaikoa.

Zuri gorriz jantzita
goaz gu kalera
partidua dago ta
etxera ikustera
urduri zauz ikusten
baietz pirriler
oso ondo jokatu
ta galdu gainera.

Gu konturatzen gara
galtzen goazela
irabaziko dugu
ipini kartela
bestela esango dute
bai hori memela
ta San Mameserako
ez dago txartela.

Bertsoak



Helena
Barrenetxea Fernandez

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -

Bihotza txuri-gorri



Apirilak hirua
ez da egun makala
elkar ikusi behar
Athletic ta Reala
denak irabazi nahi
ez da inor apala
bien arteko onenak
irabaz dezala

Bizkaitarrek badute
bigarren aukera
Donostiarrak berriz
hau edo kalera
Jendeak jarria du
balkoian bandera
pandemiak bota digu
festa bertan behera

Bihotzak txuri-gorri
dugu guk etxean
urduri gaude denok
telebista aurrean
Zer pasatuko oten den
denok galdetzean
Athletic txapelduna
ikusi nahiean

Gure talde maitea
ibili da larri
ezin izango dute
Kopa hori ekarri
Partidua amaitzean
eskua eman elkarri
hurrengo norentzat
den ezetz igarri
Aupa Athletic!!!
Irabazi edo galdu
Gu beti zurekin.


Bertsokak



Ander
Sarriguarte Garcia

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
- Ibaizabal Ikastola -

Abenduko egun bati jarriak



I

Temati itzartu nintzen
kantuka zen hainbat txori
neguaren usain hura
ezagutzen nuen ongi
egia bihurtu ziren
nire susmo ta teori.
Nik sufritu nuen eta
ezin desio inori
hilotz zurbilen gustoa
zeukan egunsenti hori.

II

Izarek estaltzen dute
horrenbeste azpi lotsa
gogoan dut partekatu
genuen une bakoitza
ximur horien artean
nire hamaika aitortza
izara kendu nuen ta
eten zitzaidan bihotza
parean aurkitu nuen
beraren gorpu hilotza.

III

Ezin nezakeen aurki
unerik arnas hartzeko
ia ez nintzen gai izan
hitzei soinua jartzeko.
Nor da munduan kapaza
guzti hori jasateko?
Hirurogei urte asko da
oroitzeko zein ahazteko
beldurra sartu zitzaidan
bakar-bakarririk hiltzeko.

IV


Begirada galdua ta
margula zeukan azala,
hilea urdina eta
sudurra oso argala.
Bere gorpua gelatik
eraman ta berehala
senti nezakeen zerbait
betiko joan zitzaidala,
bat-batean bere faltak
hustu banindu bezala

V

Amodioa hutsune,
esperantza atsekabe,
itxaropena augurio,
konpainia bakardade.
Izarei abesten diet
etsipenaren juglare.
Behin zure falta egin zen
nire olerkien jabe,
geroztik ordu guztiak
berdinak dira zu gabe.

VI

Joan zinenetik lurpean
urteak daramatzazu
agurtu gabe joan zinen,
geroztik nago halatsu
gaur arte zure omenez
eutsi izan dut indartsu
laster elkartuko gara,
baina bitartean, aizu:
inoiz amesten bazaitut,
goxo fereka nazazu.




Bertsoak



Karmele
Mitzelena Etxebeste

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

Min bizia



1

Urrunean entzuten zen
anbulantzien sirena;
hormetan gaixo usaina,
atmosfera botikena.
Zenbakidun geletara
mamuen sartu-irtena,
bata zuriko itzal zein
kamisoizko arimena.
Korridorean arnasten
zen herioren dilema,
bat hautatu behar eta
zeinen atea, zeinena?
Minbizia min bizia,
minetan minik minena;
ipini zionak ondo
ipini zion izena.

3

Negargura izan arren
zure begitan nagusi
ez zenien inoiz malko
bakar bat isurtzen utzi.
Nahiz zuk irribarre gaizki
antzeztua erakutsi,
irribarre triste horrek
bihotza ohi zidan hautsi.
Ni ezin nire bi begi
beteegiak igurtzi,
gehiegitan ez nekien
negarrari nola eutsi.
Eta, aita, begiratzen
bazintudan horren gutxi
zen zuk ere ez zenezan
nire negarra ikusi.

2

Gaitzak hartuta hezurak,
birikak eta gibela,
bizitzaz hitz egitea
zen zaila bezain krudela.
Bi besoetan hodiak,
nonahi orratzen ubela,
begietan lehortzen ez
zitzaizun dir-dir umela.
Gogoan daukat nola behin
biok bakarrik geundela
eskutik helduta egin
Zenidan irri goibela.
Isilik zu, isilik ni,
isiltasunean gela;
orain entzuten dut agur
esaten ari zinela.

4

Sendagileek ez zuten
asko ematen zugatik,
bizitzeko, emateko
zuk asko izanagatik.
Bi hilabeteko bizi
esperantza bat, tik-tak-tik...
ez da esperantza eta
ez da bizitza hargatik.
Bi astetara hil zinen
zugatik, guztiongatik;
zergatik luzatu mina,
mina luzatu zergatik?
Munduan okerragorik
existitzen den ez dakit:
eskerrak eman beharra hain
azkar hiltzeagatik.

5

Beldur naiz desagertuko
ote zaren berehala
nire oroitzapenetik
nire ondotik bezala.
Beldur ahazteko zure
ahotsa, zure azala,
eta soilik geldituko
ote den zure itzala.
Barruan giltzaperatu
nahi zinduket nola hala,
bihotzean gorde zure
argazki album zabala.
Baina begitatik urtzen
zaitut oroitu ahala,
iruditzen zait tantaka
galtzen ari zaitudala.

7

Esaten diodan arren
isiltzeko, isiltzeko,
bihotzak tarte bat beti
du zurekin aritzeko,
nahiz jakin ez zaudela hor
nire ametsak zaintzeko,
nahiz jakin ez zaudela hor
ilargia argitzeko.
Desagertu zara, haustu;
herio zorigaitzeko!
Eta ez dago modurik
zu maitatzen jarraitzeko.
Ez zaude, ez zaude inon
diodana aditzeko,
soilik hitz egiten dizut
ni hobeto sentitzeko.

6

Zutaz oroitzeak zenbat
hutsune, zenbat bertigo,
bihotza dardaratzen dit,
arnasa ostu astiro.
Zara nire bizi ezin
mingarri honen motibo
zure heriotzak hiltzen
bainau behin eta berriro.
Mina hain daukat barruan,
hain sentitzen dut bizi-
sabelean hazi eta
bihotzeraino zait igo.
Biriketean sustraitu zait
maitekiro-maitekiro,
ez dut besterik sentitzen
arnasten dudan aldiro.

8

Atzera begira nabil
iraganari usainka
zarena oroitzapen bat
baino gehiago ez baita.
Amorrua eztarrian
korapilatu ohi zait-ta,
alfer-alferrik ari naiz
heriotzari irainka.
Badakit ez zaudela hor
zerutik niri dirdaika.
badakit ez zaudela hor
niri atzetik jarraika.
Bai, baina badaezpada
ozen esaten dut nahita:
zure falta sumatzen dut,
asko maite zaitut, aita.



IL
-21